



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIako KONTSEILU ERREKTOREAK 2023KO OTSAILAREN 8AN EGINDAKO BILKURAREN AKTA

2023ko otsailaren 8an, 12:30etan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetzaren) Egoitzan eman zaio hasiera Kontseilu Errektorearen bilkurari, bertan hauexek izan direlarik:

- Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (aurrerantzean, eLankidetzaren) eta haren Kontseilu Errektoreko Lehendakaria. Bertaratua.
- Asier Aranbarru Urzelai jauna, Kontseilukidea, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratua.
- Fernando Iturriaga jauna, Kontseilukidea, Programa eta Azterlanetako Aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkaria. Telematikoki bertaratua.
- Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea. Giza Eskubideak, Berdintasuna eta Justizia Batzordeburua. Telematikoki bertaratua.
- Josu Urrutia Beristain jauna, Kontseilukidea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. Bertaratua.
- Olga García Martínez andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. Telematikoki bertaratua.
- Alberto Cereijo Fernández jauna, Kontseilukidea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. Telematikoki bertaratua.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Bertaratua.

Beren ezin etorria adierazi dutenak:

- Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun Sailburuaren Kabineteko Zuzendaria
- Bittor Oroz Izaguirre jauna, Nekazaritza eta Garapenerako Sailburuordea
- Ohiana Etxebarrieta Legrand andrea, Kontseilukidea, Legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideak, Berdintasuna eta Justizia Batzordekidea, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria.

Era berean, bertan izan dira, gonbidapen bidez eta gai-zerrendan jasotako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzeko, Alazne Camiña Izkara andrea, Koordinazio

Teknikoko arduraduna, eta Noemí de la Fuente Pereda andrea, Koordinazio Estrategikoko arduraduna.

Sarrera

Beatriz Artolazabalek hartu du hitza, eta bertaratuei ongi etorria eman ondoren, hasiera eman dio bilkurari, gai zerrenda honekin:

1. *2022ko abenduaren 5ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta onartzea.*
2. *2023ko Urteko Jarduera Plana onartzea.*
3. *Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2023ko dirulaguntzei buruzko Plan Estrategikoa onartzea*
4. *2023ko laguntzen eta dirulaguntzen deialdiak egiteko irizpide orokorrak onartzea.*
5. *2023ko laguntzen eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenei buruzko informazioa*
6. *Hitzarmen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.*
7. *% 1,5eko gehigarria aplikatzeari buruzko informazioa. 2022ko soldata igoera.*
8. *Eskaerak eta galderak*

1. Aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta onartzea

2022ko abenduaren 5eko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako pertsona guztien aldeko botoekin.

2. 2023ko Urteko Jarduera Plana onartzea

Paul Ortegak hartu du hitza eLankidetzaren 2023ko Urteko Jarduera Planaren puntu nagusiak azaltzeko.

Puntu nagusiak aurkeztu ondoren, Lankidetzeta eta Elkartasunari buruzko Legearen epeen aurreikuspenari buruz galdetu du Josu Urrutiak. Paul Ortegak erantzun du esanez Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Euskadiko Aholku Batzordearen txostenak egin ondoren, Kontseilu Errektoreari helaraziko zaiola Legea, onar dezan, eta ondoren Gobernu Kontseiluari, onar dezan eta Legebiltzarrerara bidal dezan. Beatriz Artolazabalek gaineratu du helburua dela legea legegintzaldi honetan onartzea. Josu

Urrutiak galdetu du txosten bakoitzak aldaketak eska ote diezazkiokeen testuari, eta Paul Ortegak argitu du, jasotako ekarpen bakoitzari dagokionez, organo sustatzaileak txosten laburrean jaso edo justifikatu behar duela aintzat ez hartzeko arrazoia.

Josu Urrutiak bere harridura azaldu du, modu positiboan, Eusko Jaurlaritzako pertsonak ezagutzaren mugikortasun-esperientzian izandako parte-hartze maila handiagatik, Garapenerako Politiken Koherentziaren arloan.

Gainera, Afrikarako Bide Orriaren berritasuna nabarmendu du. Paul Ortegak azpimarratu du zuzeneko deialdi eta dirulaguntzen bidez egiten ari den ahalegina funtsen % 25 Afrikara bideratzeko helburua lortzeko; eta ildoak eta lehentasunak argitzeko beharra azaldu du.

Josu Urrutiak galdetu du nola erabiltzen ari den eLankidetzaren proiektuen tresnaren ebaluazioa. Noemí de la Fuentek erantzun du zehaztuago edukitzean emango dela horren berri.

Galdera gehiago izan ez denez, bozkara eraman eta aho batez onartu dute bertaratuek.

3. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2023ko dirulaguntzei buruzko Plan Estrategikoa onartzea.

Paul Ortegak hitza hartu du eta Dirulaguntzei eta Banatu daitezkeen Funtsei buruzko Plan Estrategikoaren puntu nagusiak azaldu ditu.

Josu Urrutiari deigarria egin zaio, kontuan izanik 2022ko ekitaldian dirua itzuli behar izan zela genero berdintasunaren aldeko antolakuntza-aldaketaren deialdian (aurrerantzean, GBA), aurtengo ekitaldiari begira zuzkidura ekonomiko berbera aurreikusi izana. Alazne Camiñak berretsi du 2022an deialdiaren hasierako zuzkiduraren % 71 gauzatu zela, eta 130.000 € inguru geratu zirela esleitu gabe. Nolanahi ere, gogorarazi du eskaeretakoa bat ezin izan zela esleitu gutxieneko 50 puntuak biltzen ez zituelako, eta, gainera, deialdira aurkeztu behar zuten entitate batzuk azkenean ez zirelako aurkeztu. Alberto Cereijok adierazi du 2021eko GBaren

deialdian 6 proiektu kanpo geratu zirela funtsak agortu zirelako. Iritzi horien aurrean, Alazne Camiñak azpimarratu du eLankidetzaren funtsezko apustua dela genero berdintasunaren aldeko aldaketa-prozesuetan euskal entitateei laguntzea. Horrenbestez, hasierako zuzkidura 2022an bezala mantentzea planteatzen da, 2023an dekretua berritu ondoren egindako bost deialdien esperientzia baloratzeko konpromisoarekin, eta, horretan oinarrituta, 2024ko zenbatekoa erabakitzea.

Bestalde, Josu Urrutiari harrigarria iruditu zaio 2022tik 2023ra bitarteko laguntza izendunen aurrekontua % 32 igo izana, eta galdetu du ea laguntza horiek zuzeneko lankidetzatik kanpo ote dauden. Paul Ortegak berretsi du laguntza izendunak Legebiltzarrak onartutako laguntzak direla eta, teknikoki, ez direla zuzeneko lankidetzara gisa zenbatzen.

Ildo horretan, Josu Urrutiak adierazi du, aurreko urteetako konpromiso gutxiago egonik, harrigarria egiten zaiola PROren deialdiaren aurrekontua ez handitzea baina ekintza humanitarioko deialdiak eta zuzeneko laguntza eta dirulaguntzak areagotzea. Noemí de la Fuentek azaldu du 2020an erabaki zela proiektuen deialdiari (aurrerantzean, PRO) egonkor eustea, ordainketa-sistemaren eta hurrengo urteetarako konpromisoen ondorioz urtez urteko gorabeherak saihesteko. Eta PROren deialdia handitzeak programen deialdia (aurrerantzean, PGM) abian jartzeko funts erabilgarriak baldintzatu ditzakeela.

Azkenik, Josu Urrutiak bere harridura azaldu du banatu daitezkeen funtsetan PGM tresnarik ez dagoelako. Paul Ortegak erantzun dio esanez aurreikuspenen arabera 2022an egingo zela deialdia, baina lankidetzari buruzko legea berrikusteko prozesuaren testuinguruan beharrezkotzat jo dela dekretu berria ongi zehaztea eta lege aurreproiektuaren jarraibideetara ahalik eta gehien egokitzea. Beraz, 2023an onartzeko konpromisoa hartzen dela, 2024an tresnaren deialdia egin ahal izateko. Alberto Cereijok galdetu du 2024ko PGM partida sartzeak beste tresna batzuei, bereziki ekintza humanitarioari, esleitutako zenbatekoen egonkortasunean eragin ote diezaiekeen. Paul Ortegak erantzun dio esanez ekintza humanitarioaren ildoak handitzeak ondorengo ekitaldietako funtsak ez baldintzatzeko bertutea duela.

Galdera gehiago egin ez denez, botoetara eraman eta gehiengo batez onartu da, aurkako bi botorekin, Josu Urrutia eta Olga Garcíaarenak, eta Alberto Cereijoren abstentzioarekin.

4. 2023ko laguntzen eta dirulaguntzen deialdiak egiteko irizpide orokorrak onartzea.

Alazne Camiñak deialdiak egiteko irizpideak azaldu ditu. Berrikuntza gisa nabarmendu du 2023an deialdi guztiak, PROren deialdikoak izan ezik, behin betiko ebazpena eman aurretik ebatziko direla. Bi ebazpen horiek PROren deialdiari ez aplikatzeko arrazoia da espediente-bolumen handiena duena izanik, berritasun horrek gainerako deialdietan izango duen eragina ikusi nahi dela, PROn aplikatzeko aukera baloratu aurretik. Azken horri dagokionez, ohartarazi du aparteko lan ikaragarria sorraraziko duela.

Beste iruzkinik izan ez denez, aho batez onartu dira deialdiak egiteko irizpide orokorrak.

5. 2023ko laguntzen eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenei buruzko informazioa

Paul Ortegak 2023ko deialdiei begira aurreikusitako egutegiaren berri eman du.

6. Hitzarmen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.

Paul Ortegak Afrikako hiru herrialdeetako –Kongoko Errepublika Demokratikoa, Hegoafrikako Errepublika eta Maliko Errepublika– gatazka armatuetan emakumeen aurkako sexu indarkeria desagerrarazten laguntzeko Mujeres por África Fundazioarekin egindako hitzarmen proposamena aurkeztu du, onartua izan dadin.

Ez da iruzkinik izan eta aho batez onartu da.

7. % 1,5eko soldata igoera gehigarria aplikatzeari buruzko informazioa.

Paul Ortegak azaldu du 2022ko abenduan aplikatu zela Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 22an onartutako % 1,5eko soldata-igoera gehigarria. % 3,5ekoa da 2022. urterako soldata-igoera globala.

8. Eskaerak eta galderak

Hauxe da Beatriz Artolazabal lehendakari izan duen Kontseilu Errektorearen azken bilkura, eta agurtzeko biziki eskertu die bertaratuei azken bi urte eta erdian egindako lana eta eskainitako laguntza. Azpimarratu du legea Legebiltzarrean onartzea dela helburua, eta positiboki balioetsi du eLankidetzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak Sailean txertatzea, saileko beste arlo batzuekin bat egiteak dimentsio handiagoa ematen diolako euskal lankidetzari.

13:40an amaitutzat eman da bilkura.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenengo lerroaldean aurreikusitakoa betez, akta eLankidetzaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jasotzen da.

Oniritzia: Beatriz Artolazabal Albeniz and.
eLankidetzaren eta Kontseilu Errektoreko
Lehendakaria.

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
eLankidetzaren Zuzendaria